

HIRIGINTZA FITXA. - 14 SO. TRENBIDE SAREA.

LURZORU HIRITARREZINA/ LURZORU HIRITARRA

1. HIRIGINTZA INFORMAZIOA. AURREKARIAK.

Trenbideko jabari publikoko zona da, Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Herri Lan sailaren titularitatekoa. Zehazki, Bilbo-Donostia linearen zona da, Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektorialean Donostialderako aldiriko tren moduan sustatu beharreko linea gisa kalifikatua.

1.1. GARAPENeko PLANEAMENDUA.

Inolako plan berezirik ez da egin. Nolanahi ere, orain hainbat aukera aztertzen ari da: bidea bitan banatzea, metro arina, Ermua-Deba tranbia eta abar.

1.2. UDALAZ GAINDIKO PLANEAMENDUA.

Lurraldearen Antolamendurako Zuzentarauak, Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko Legea.

1.3. HIRI EGITURA.

Trazatua udalerrriaren ertzetik doa, ibaiaren eta itsasoaren bidearekin batera eta ia paraleloan; beraz, hirigintzako hesi fisiko bat eratzen duen elementua da.

1.4. ESPARRUAREN AZALERA. 58.658 m²**2. HIRIGINTZA ERREGIMENA.**

- 2.1. LURZORUAREN SAILKAPENA : Hiritarra (berrikuspen honetan aurreikusitako aldameneko alderdien ezaugarriekin eta sailkapenarekin bat etorriz) eta hiritarrezina.
- 2.2. KALIFIKAZIO OROKORRA : Trenbide sareen zona (11. artikulua: E.2).
- 2.3. ALDERDIEN MUGAKETA : Trenbidea gauzatu dagoenez, mugaketak planeamenduan dagoena jasotzen du, trenbidearen gainean eskuduna den erakundeak burutu baitzuen.

3. PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.

Trenbide sarearen egungo trazatua finkatzea. 2 SO. "Fermin Kalbeton zumardia" unitatean udalerrriaren premiei irtenbidea emango liekeen edozein antolamendu egiteko, Trenbideko Lurralde Plan Sektorialean aldaketa egin beharko litzateke, alorreko administrazio eskudunaren bidez eta Debako Udalarri entzun ondoren. Aipatu esparruan, hiri bilbearen parean eta egungo ereduaren alternatiba gisa honako aukerak gara litezke: hiri egitura hareatzako zabalgunearekin, hondartzarekin, erriberako pasealekuekin eta kirol portuarekin txertatzea, egungo hesi efektua ezabatuz, eta Gudarien plaza zerbitzu anitzeko gune moduan eta pasealeku estalia geltoki berriaren bezpera gisa ulertzea; horrek orain bertan dagoen eraikina portu erabilerarako (7 SO) baliatzea ahalbidetuko luke.

3.1. KALIFIKAZIO XEHEKATUA.

Erakunde eskudunak zehaztu beharko du. Hasiera batean, LGALaren hiru zonak ezarriko dira:
Trenbideko jabari publikoko zona (8 metro).
Zorpeneko zona (20 metro).
Eragin zona (50 metro).

3.2. ORDENANTZA XEHEKATUAK.

Erakunde eskudunak zehaztu beharko ditu.

3.3. PROBETXAMENDU, ERAIKUNTZA, JABARI ETA ERABILERA BALDINTZAK.

Probetxamendua. Dagokion plan sektorialean xedatuko da.

Eraikuntza. Dagokion plan sektorialean xedatuko da.
Gaur egungo geltoki eta azpiestazio elektrikoaren eraikuntza finkatuko da.

Jabaria. Publikoa (Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Herri Lan saila).

Erabilera orokorra. Lurreko garraioa: tren.

Erabilera baimenduak Itsaso eta lehorren arteko jabari publikoaren babes zorpeneko eremuan, Kosta Legearen 24 eta 25. artikuluetan xedatutakoa beteko da.

Jabari publikoko zona: tren zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak diren obrak eta instalazioak.

Zorpeneko zona: zuhaitzak landatu eta moztea.

Behe tentsioko linea elektrikoak eta telefonia lineak.

Lurpeko hodieria.

Ezpondei, lurbetetzei eta lubetei eusteko hormak.

Hiritartze eta ekipamendu berriak (ospitaleak, kirol zentroak, irakaskuntzakoak, kulturalak).

Eragin zona: LGALaren 286 eta 287. artikuluen arabera.

Erabilera debekatuak.

Jabari publikoko zona: zuhaitzak landatzea.

Zorpeneko zona: Eraikuntza berriak edota berreraikuntzak.

Eragin zona: LGALaren 288. artikuluen arabera.

3.4. EKIPAMENDU ETA HIRITARTZE BALDINTZAK.

Dagokion plan sektorialean xedatuko da.

3.5. PLANEAMENDU ETA KUDEAKETA BALDINTZAK.

Plan sektoriala.

Hiritartze proiektua.